

NOS MUEVE
BILBAO
BAT EGINIK



JUAN MARI ABURTO RIKE
BILBOKO ALKATETZARAKO HAUTAGAIA

HAUTESKUNDE PROGRAMA
BILBO 2019-2023

EAJ-PNV.EUS



juanmariaburto.eus



ejaj
pnv

1. JARDUERA EKONOMIKOA ETA ENPLEGUA

la 10 urteko krisi ekonomiko eta finantzarioaren ondoren, **Bilbo egoera ekonomiko onean dagoela** esan dezakegu. Bilbo aukerez beteta dagoen hiri dinamiko eta aktibo bezala aurkezten da.

Hazkunde iraun eta orekatuko garaian sartuta gaudela, hiria, Industriarako Zerbitzu Aurreratuetan espezializatu (hiriko ekonomiaren % 23 da) eta kalitatezko helmuga turistikoa bezala indartu da, turismoak gure ekonomiaren % 6 suposatzen duelarik. Horren ondorioz, enpleguari eta enpresari buruzko adierazleak etengabe hobetuz joan dira, duela 4 urte baino 9.181 langabe gutxiago erregistratuta daudelarik (datuak 2015eko otsailetik 2019ko otsailera bitarteko epealdiari dagozkio). Gainera, Bilbok ia 17.297 pertsona gehiago afiliatuta dauzka eta 3.730 jarduera ekonomiko baino gehiago irabazi ditu (datuak 2015eko martxotik 2019ko martxora bitarteko epealdiari dagozkio).

Hala ere, kualifikaziorik txikieneko pertsonen langabezia kronifikatzeko arriskuak, enpresek eskatzen dituzten profil berrietara egokitzeko premiak, enpleguaren kalitatean gertatutako polarizazioak, ekintzailetzaren aldeko bultzadaren galerak, tokiko merkataritzaren lehiakortasunari eusteko erronkak eta nazioarteko egoera ekonomikoari buruzko zalantzek gure onena ematera behartuko gaituzte datozen urteotan Bilboren bultzada ekonomikoa haziarazteko.

Esparru honetan, hauxe izango da 2019-2023 agintaldirako gure helburu nagusia: ekonomia globalera irekitako sektore lehiakorretan **jarduera ekonomiko berriaren** sorrera erraztuko duten baldintzak sortzen jarraitzea, bilbotarrek aukera horietaz baliatzeko aukera izan dezatela lortuz. Hori guztia, **langabezia tasa murrizten jarraitzeko eta kalitatezko enplegua sortzeko** asmoz.

1. JARDUERA EKONOMIKOA ETA ENPLEGUA

1.1- AUTOENPLEGUA ETA EKINTZAILTZA

HELBURUA

Sorreran nahiz finkatze eta azelerazio aldian, hirian **kalitatezko enplegua sortzeko gaitasuna duten ekintzailtza-ekimen guztiak sustatu eta babestea**, ekintzailtzaren kultura handitzeko sustapenari eta beharrezko finantzaketarako sarbideari arreta berezia emanaz.

NEURRIAK

1. “Nazioarteko Ekintzailtza Zentroa” abian jartzea barne-ekintzailtza sustatzeko, start-upen azelerazioa bultzatzeko eta hiriko ekintzailtza ekimenak nazioarteko merkatu eta sareetara hurbiltzeko.
2. Bertako oinarriko autoenplegu eta ekintzailtza ekimenei laguntza integrala ematea, gutxienez 600 mikro-ekintzailtza berriren eta 900 enplegu berriren sorrera errazteko..
3. “BIG Bilbao” Bilboko ekintzaileei arreta integrala emateko zentrotzat indartzea.
4. Enpresa eta ekintzailtzaren kulturak gure hirian duen balioa sustatu eta aitortzeko ekintzak areagotzea.
5. Bertako ekintzailtza bultzatzeko “Egoitza Plana” garatzea.
6. “Mentoring Bilbao” programa bultzatzea.

1.2- SEKTORE ESTRATEGIKOAK ETA ESPEZIALIZAZIO ADIMENDUNA

HELBURUA

Sektore estrategikoen eta espezializazio adimendunaren **garapena sustatzea hiriaren garapen ekonomikoaren mesedetan**, hiri-plangintzaren eta garapen enpresarialaren arteko lotura indartuz eta garapen ekonomikoarekin zerikusia duten enpresen, Unibertsitateen, bestelako eragile zientifiko-teknologikoen eta erakundeen arteko lankidetzat bultzatuz.

NEURRIAK

1. Zorrotzaurreko “Enpresa eta Teknologia Parkea” eta “Hiriko Berrikuntza Barrutia” delako proiektuaren eredia definitu eta abian jartzeko aurrerapausoak ematea.
2. Hirian jarduera ekonomia sortzeko dauden aukera esparru berrien definizio estrategikoa: Zorrotzako Muturra, Errekalde, AHTa Bilbora iristearekin eta trenbide-lubakia lurperatzearekin lotutako esparruak, Artxanda, Elorrieta,...

1. JARDUERA EKONOMIKOA ETA ENPLEGUA

3. “Nagusi Intelligence Center” delakoa diseinatu eta sortzea, Bilbo-Bizkaian “zilarrezko ekonomia” deritzon sektorearen garapena bultzatzeko.
4. Biomedikuntza/bioingeniaritzari lotutako industriren estrategia zabaltea.
5. Industriarako Zerbitzu Aurreratuak, Ekonomia Digitala eta Sormen eta Kultura Industriak sortzea hainbat kluster eta elkarte sektorialeko lankidetzaren bitartez. “AS Fabrik Bilbao” proiektuaren 2. fasea garatzea 4.0 Industriari lotutako prestakuntza gradu berrien garapenerako.
6. “Smart City Bilbao” estrategiaren garapena.

1.3- TURISMO IRAUNKORRA ETA OREKATUA

HELBURUA

Bilbo balio erantsi handiko nitxoetan (turismo kulturala, turismo gastronomikoa, konbentzioen turismoa,...) espezializatutako **helmuga turistiko erakargarritzat** eraikitzen eta sustatzen jarraitzea, fluxu turistikoaren eta hiri barruko dinamiken artean ahalik eta iraunkortasun eta orekarik handiena bermatuz.

NEURRIAK

1. Bilbao-Bizkaia marka eta aliantza indartzea Bilboren nazioarteko sustapen turistikorako.
2. Hiriaaren sustapen turistikorako online tresnak eta teknologia berriak indartzea bisitatzen gaituztenen esperientzia hobetzeko.
3. Bilbao-Bizkaiaaren Marketin Turistikoko Estrategia berria inplementatzea, ohikoak ez diren merkatu igorleetan sustapen lana indartzeko.
4. Bilbao Convention Bureauren eginkizuna indartzea, Bilbora jarduera korporatibo berriak erakartzeko eta horiei buruzko aholkularitza eta laguntza emateko.

1. JARDUERA EKONOMIKOA ETA ENPLEGUA

1.4- BERTAKO MERKATARITZAREN SOSTENGUA

HELBURUA

Bertako merkataritzari sostengu integrala ematea, lehiakortasunari eutsiz eta kontsumo-eredu berrieta egokitzea sustatuz, eta Bilbok merkataritza-hiriburu bezala duen erakargarrtasuna indartzea, ez soilik Bizkaian, baita gure inguruko eraginpeko eremuan ere (“Bilbo 90 minutura”).

NEURRIAK

1. “Bertako Merkataritzaren Plan Integral” berria lantzea sektorea ordezkatzan duten elkarte eta erakundeen lankidetzaz, hirigintzan, enpresa-kudeaketan nahiz merkataritzaren sustapenean merkataritza biziberritzea xeden duten neurriak sartuz eta auzoei arreta berezia emanez.
2. Bertako merkataritza txikiaren lehiakortasuna, digitalizazioa, kudeaketa-ereduen berrikuntza nahiz bezeroaren esperientzia indartzeko ekintza espezifikoak abian jartzea.
3. Hiriko merkataritza establezimendu bitxien nortasuna nabarmentzeko ibilbideak diseinatu eta sustatzea, sustapen turistikoaren eta bertako merkataritzaren sustapenaren arteko lotura indartuz.
4. “Bilbo, Merkataritza Hiria” proiektua diseinatu eta abian jartzea, Bizkaian zein gure inguruko eraginpeko eremuan Bilbok merkataritza-hiriburutzat duen posizionamendua indar dezaketen ekintzak garatuz sektorea ordezkatzan duten eragileekin batera.

1.5- INBERTSIOAK ETA TALENTUA ERAKARTZEA: INVEST IN BILBAO-BIZKAIA

HELBURUA

Maila altuko **enplegua** zein ikerketa eta teknika arloko talentua **sor dezaketen inbertsio produktiboak Bilbora erakartzen** laguntzeko lan proaktiboa garatzea.

NEURRIAK

1. Inbertsioak eta talentua erakartzeko Bilbao-Bizkaia aliantza indartzea eta Ekintza Plana zabaltzea.
2. Bilbora erakarritako inbertsio produktiboei zerbitzu integrala eskaintzea, sortutako enplegu-aukerak hiriko biztanleei helaraziko dizkieten prestakuntzaekintza espezifikoaren antolaketari eta bertako zentro

1. JARDUERA EKONOMIKOA ETA ENPLEGUA

teknologiko nahiz klusterrekiko harremani arreta berezia emanez.

3. Beste lurralde batzuetan lan egin ondoren gure hirira itzuli nahi duten bilbotarrei laguntza ematea, kanpoko talentuaren komunitatea sortuz. Bizkaia Talentekiko lankidetzak, kolektibo honi zuzendutako lan-eskaintzen bilketa eta kudeaketa, enpresen eta profesionalen arteko networkinga eta kontrataziorako laguntza-programa.
4. Hirian talentua sustatzea, Bilbo “Unibertsitate Hiri” bezala garatuz eta posizionatuz.

1.6- LANERATZEA ETA KALITATEZKO ENPLEGUA

HELBURUA

Jarduera ekonomikoak bilbotarren mesedeko **kalitatezko enplegu-aukerak** sortzea lortzea, enplegua lortzeko zailtasunik handienak dituzten pertsonen zuzendutako programei bultzada berezia emanez.

NEURRIAK

1. Enplegu-planak eta bestelako esperientzia-programak garatzea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta beste eragile batzuen lankidetzaz.
2. Kualifikazio murrizteko pertsonen nahiz lana lortzeko zailtasunik handienak dituztenei prestakuntza eta enplegurako sarbidea erraztea xede duten ekimen propioak nahiz beste erakunde, entitate edo enpresa batzuek sustatutakoak bultzatzea.
3. Lanbide Heziketako titulua nahiz Unibertsitate Graduak dituzten gazteei zuzendutako enplegu-planak garatzea, enpresen eta klusterren lankidetzaz.
4. Hiriko enpresetan gizarte-konpromisoaren inguruko sentsibilizazioa zabaltzea enpleguaren kalitateaz, aukera berdintasunaz eta lana lortzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen kontratazioaz.
5. Enplegua lortzeko aukerak sortzea Udalaren Lan Eskaintza Publikoen bitartez.

1. JARDUERA EKONOMIKOA ETA ENPLEGUA

1.7- EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA

HELBURUA

Ekonomia sozial eta solidarioa garapen eredutzat sustatzea, gizarte erantzukizunezko enplegu eta aberastasunaren sorkuntzaren mesedetan.

NEURRIAK

1. Ekonomia sozial eta solidarioa herritarren artean sustatzea autoenplegurako eta enpresa berrien sorkuntzarako aukera bezala eta ekonomia, ingurumen nahiz gizartearen ikuspegitik iraunkorra den garapenaren aldeko konpromisoaren eredu bezala.
2. “Ekonomia sozial eta solidarioaren poloa” abian jartzea, ekintzailtza sozial eta solidarioari buruzko prestakuntza eta sostenguaeren erreferentziazko esparrua izan dadin.
3. Jarduera ekonomikoa beren-beregi kooperatibaren ereduaren arabera sustatzea, Kooperatiben Lege berriak izaera sozialeko mikro-ekintzailtzei eskainiko dizkien aukerak profitatuz.
4. Klausula sozialak bultzatzea kontratazio publikoan eta erosketa publiko berri-tzailean ekonomia sozial eta solidarioko proiektuak garatzeko.
5. Hirugarren eta Laugarren Sektoreetako ekimenak finkatzeko aukera-esparruak erraztea.

1.8- NAZIOARTEKO JARDUERAK ERAKARTZEA

HELBURUA

Kultura eta aisia arloko jarduera sortu eta/edo ezagutza erakarri eta hirian aberastasuna eta enplegua sortzeko helburu bikoitza betetzen duten **nazioarteko ekitaldiak Bilbora modu iraunkorrean erakartzea**.

NEURRIAK

1. Kultura, kirola, enpresa, ekonomia, gizarte-garapena eta teknologia bezalako esparruak ardatz dituzten nazioarteko ekitaldien estrategia diseinatu eta inplementatzea, Bilbora erakarri beharreko ekitaldien lehentasunezko tipologia zehaztuz. Estrategia hau modu kolaboratiboan diseinatuko da, Bilbora azken urteotan erakarritako nazioarteko ekitaldiek ekonomiaren, gizartearen nahiz ingurumenaren ikuspegitik izan duten inpaktuari buruzko azterketa abiapuntu-tzat hartuta.
2. Ekitaldi horiek erakarri eta kudeatzea, betiere iraunkortasuna sustatuz (bertako dinamikekiko koexistentzia), segurtasun publikoa bermatuz eta hiriko enpleguaren gaineko inpakturik handiena eta itzulkin ekonomikorik handiena bultzatuz.
3. Zientzia eta ikerketa esparruko ekitaldiak Bilbon antola daitezela berariaz sustatzea, inpaktu ekonomikoarekin batera Bilbo-Bizkaia-Euskadiri maila altuko ezagutza ekar diezaioten.

NOS MUEVE
BILBAO
BAT EGINIK